

Pinguino euskalduna

Josu Waliño

Informatikan lizentziatua

Joan den otsailaren 1ean aurkeztu zen Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean Euskal-Linux ORG elkartearen Aspalditik entzunda genuen Linux euskaratzen ari zen taldea bazela. Aurkezpena dela eta, erakunde honen lana ezagutu ahal izan genuen; Linux euskaratze hutsa baino gehiago den lana, hain zuzen ere.




EUSKAL-LINUX

LINUX ZER DEN dagoeneko badakite irakurle gehienek. Bere ezaugarri nagusia, doan banatzen den sistema eragilea izatea da. Internet bidez milaka boluntariok garatutako sistema eragilea da, eta beraz, Internet bertatik doan behera kargatzeko aukera dago. Sistema honek duen abantailetakoa bat, bere kodea askea izatea eta norberak sistema eragilean nahi dituen aldaketak egin ahal izatea da.

Duela gutxi arte Microsoft-ek Linux-ijaramonik egiten ez bazion ere, gaur egun Windows-en areririk garrantzi-

tsuena dela esan daiteke. Diotenez, Txinan gehiago erabiltzen da Linux Windows bera baino eta mundu guztian gero eta hedatuago dago. DELL konpainia Linux sistema-eragilea instalatuta duten ordenagailuak saltzen hasi da. Hori asko lagundu dio doan banatze horrek, baina kontuan izan behar da azkenaldian Linux beraren erabilera asko erraztu dela (interfaze grafikoa ere hobetu egin delarik) eta segurtasun-maila handia eskaintzen duten kopia komertzialak ere merkatuan salgai daudela. Hori bai, kopia hauek lauzpabost mila



pezetatan saltzen dira bost edo sei CDtan bildutako milaka programarekin batera, Windows ez bezala.

Euskal-Linux

Microsoft-en Office euskaratu genuela eta, pauso gehiago emateko genuen beharraz hitz egin nuen lehenago hemen: MacOS edo Linux sistema eragileak euskaratzearen beharraz, edo merkatuan banatuta dauden hainbat aplikazio itzuli beharraz. Euskal-Linux elkartearen eskutik etorri zaigu Linux-en euskarazko bertsioa. Duela bost urte hasi zen lan

Euskarazko bertsioa

Euskal-Linux ORG elkarteak egindako lana txalogarria bada ere, ez da hainbestekoa itzulpenean erabili duten euskara-maila. Euskarazko Linux hau ikusteko aukerarik izan ez badut ere, beren webgunean (www.euskal-linux.org) agertzen diren pantailak ikusita, itzulpenean euskara ez dutela asko zaindu esango nuke. Hona zergatik diodan hau guztia: Euskaltzaindiaren arauak kontuan hartu ez dituztela garbi dago, "Jokuak" edo "Pantaila zarratu" eta antzeko menuak ikusten direlako. Baina hori baino larriagoa deritzot terminologia aldetik dagoen nahasketari. Garrantzitsua deritzot terminologia bateratua erabiltzea. Bestela erabiltzaileak nahastu egingo ditugulakoan nago, gauza berari era bat baino gehiagotan deitzen badiogu. Windows eta Linux ez dira berdinak baina antzeko terminologia erabiltzen dute, eta ez dakit zergatik batean



hau egiten boluntario-talde bat, eta orain aurkeztu duten euskarazko Linux-en bertsio hau beren lanaren lehen emaitza da. Sistema eragilea ez dago guztiz itzultuta, horrelako sistema eragile osoa itzultzeak lan izugarria eskatzen duelako, eta gainera kontuan izan behar da Euskal-Linux-eko lagunek beren lan-orduetatik kanpo egindako itzulpen-lana dela hau. Dena den, Linux itzultzea ez omen da

“Linux itzultzea ez omen da haien helburu bakarra, sistema eragile hau Euskal Herrian zabaltzea baizik”.

haien helburu bakarra, sistema eragile hau Euskal Herrian zabaltzea baizik. Eskolak bultzatu nahi dituzte Linux erabiltzera, eta ez hori bakarrik, ONCEREkin ere lanean ari omen dira Linux-ek braille hizkuntza ezagutu dezan eta horrela ezinduentzat aplikazio bereziak sortzeko asmoz. Hala ere, sistema eragileak arrakasta izateko garbi dago entretenimendua ere eskaini behar duela. Hori izan da Windows-en arrakastaren ezaugarrieta-ko bat eta MacOSaren galbidea ere bai

Crusoe mikroprozesadore berriak

Transmeta konpainiak gailu mugikorretara egokitutako mikroprozesadore berria aurkeztu du: Crusoe izenekoa. Mikroprozesadore honen berezitasun nagusia bere teknologia softwarean oinarritzea da. Mikroprozesadore honek Internet-eko aplikazioak gailu mugikorretan erabiltzeko aukera emango du, bateria-konsumo oso txikiarekin. Dagoeneko ordenagailu eraman-garriari begira ari dira 700 Hz-eko Crusoe mikroprozesadorea garatzen.



Bere burua deusezten duten DVDak



ARTXIBOKOA

Pentsa ezazu DVD bat zure gailura sartu eta mezu hau ematen dizula: “DVD hau hiru egunen buruan deuseztatu egingo da”. Spectradisc izeneko konpainiak, epe jakin batean DVDak funtzionatzeari uzteko sistema asmatu du. Laserrak DVDaren azala ukitzen duenean, erreazio kimikoa sortuko da eta diskoa ezingo da epe

jakin batean irakurri. Bideoak alokatzeko eta demo komertzialetako produktua litzateke hau.

hainbat urtetan (nahiz eta azkenaldian eta iMac-aren bidez egoerari buelta eman zaion), eta hau dela eta Linux-erako jokoak euskaraz eskaintzea pentsatzen ere ari dira Euskal-Linux-ekoak.

Horretarako jarri omen dira Estatu Batuetako etxe garrantzitsu batekin harremanetan. Laster batean talde honek egindako lanaren berri izango dugulakoan gaude. ☐

“Edizioa” itzuli dena bestean “Argitaratu” itzuli behar den. Lana bikoizteaz gain, erabiltzaileak nahastu egiten ditugu horrelakoekin. Baina arazoa ez da lehenetik eginda zeuden itzulpen-

-lanekin ez bateratzea bakarrik. Linux-en euskarazko bertsioan “File” menua “Fitxategia” ematen da leiho batean eta “Artxibua” beste

batean. Terminologia honek ere bateratuta egon beharko luke, eta ahal den heinean Euskaltzaindiaren arauak kontuan izanik idatzita ere bai.

